



## KODE ETIKOA ETA JOKABIDE-KODEA

### ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE, SA

#### 1. XEDEA.

Izenperen jarduketa eremu guztietan aintzat hartu behar diren arau etikoak eta jokabide-arauak ezartzea da Kode etiko eta jokabide-kode honen helburua.

#### 2. HARTZAILEAK.

Izenpeko langileak dira Kode etiko eta jokabide-kode honen hartzaileak, baita Izenperen izenean edo Izenperentzat elkarlanean aritzen diren, lan egiten duten eta/edo zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsonak ere.

#### 3. PRINTZIOAK ETA BALIOAK.

Kode honek printzipioak eta balioak jasotzen ditu. Zintzotasuna eta bikaintasuna dira Izenperen jarduera osatzen duten balioak.

- Zintzotasuna, honela ulertuta: zuzentasuna, inpartzialtasuna, objektibotasuna, gardentasuna, Izenpek aplikatu beharreko marko juridikoarekiko errespetua eta kudeaketa arduratsua.
- Eta bikaintasuna, uneoro hobetzeko etengabeko ahalegin gisa ulertuta.

Balio horiekin batera, honako printzipioak daude Izenperen eta kode honen hartzaileen jokabideen ardatzean:

- Banakako jokabidea.
  - Fede onez eta ahalik eta inplikazio handienarekin beteko dituzte haien funtzioak, eta haien erabakien eta ekintzen erantzuleak izango dira.
  - Haien funtzioak betetzean gertakari edo informazioen baten berri izanez gero, behar bezala gordeko dute. Jasotako informazioa ezingo dute erabili edo helarazi, ez euren probetxurako, ez hirugarren pertsona baten probetxurako.
  - Ez dituzte onartuko ohiko erabilerak gainditzen dituzten opari sozialak edo kortesiazkoak, ezta abantailazko baldintzetan jasotako mesedeak edo zerbitzuak ere.
  - Izenperen izen eta irudi ona mantentzen lagunduko dute.
- Efikazia eta efizientzia.
  - Ahalik eta efikazia eta efizientzia handienaz garatuko dituzte haien funtzioak, eta, kasu guztietan, Erakundearen helburuen lorpena eta interesak lehenetsiko dituzte.
- Inpartzialtasuna eta objektibotasuna.



- Edozein motatako kontratazio prozeduretan inpartzialak, independenteak eta objektiboak izatea; haien funtzioak garatzean egindakoak edo ez egindakoak eragindako ondorioak onartzea; irizpide independentea mantentzea, interes partikular ororen gainetik; eta haien objektibotasun partikularri eragin diezaioketen gaietan ez esku hartzea.
- Ez erabiltzea haien posizioa abantaila pertsonalak edo materialak eskuratzeko.
- Errespetua.
  - Beste pertsona batzuekin zuzen, zintzo, errespetuz, fede onez eta hezibidez jokatuko dute. Eta, bereziki, ez dute bazterkeriarik egingo honako arrazoiengatik: generoa, arraza, erlijioa edo sinesmenak, ideologia, orientazio sexuala, desgaitasuna edo beste edozein zirkunstantzia.
  - Izenperen aktiboak zentzuz erabiliko dituzte, erakundearen mesedetan, eta inoiz ez erakundeaz bestelako interesetarako.
- Gardentasuna.
  - Gardentasunez jokatuko dute jarduerari dagozkion funtzioetan; ezagutzea garrantzitsua den informazio eguneratua noizean behin argitaratzeko konpromisoa du Izenpek.
- Interes-gatazkak.
  - Interes-gatazka bat sor lezakeen egoera oro saihestea. Interes-gatazka dagoela diogu, egoera batean, kanpoko negozioen, finantza-negozioen, familiakoen, politikoen edo finantza pertsonalen negozioen interesak tartean sar badaitezke Izenpen dagozkion funtzioak betetzen dituen moduan.

#### 4. BARNEKO KUDEAKETA SISTEMAK.

Izenpek komunikazio-sistema bat du, informazioa modu anonimoan edo isilpean helarazteko aukera ematen duena, kanal hauen bidez:

- [salaketak@izenpe.eus](mailto:salaketak@izenpe.eus) helbidea
- Izenpen eskuragarri dagoen postontzi fisikoa.
- Ahoz, Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Batzordeko edozein kideri.

Sistema horien bidez komunikatu behar da jarduera susmagarri oro, Kode honen aurkako jokabide posibleekin lotuta daudenak eta, bereziki, legez kontrako jarduera penalak.

#### 5. KODEA BETETZEN DELA IKUSKATZEKO BATZORDEA.

##### – Osaera.

Honako kargu hauek dituzten pertsonak osatzen dute Batzorde hau:

- Izenpeko Administrazio Kontseiluko presidentea; Batzordeko presidentea izango da.



- Izenpeko zuzendaria; Batzordeko kidea izango da.
  - Izenpeko Aholkularitza Juridikoaren arduraduna; Batzordeko kidea eta idazkaria izango da.
- Funtzioak.

Honako funtzio hauek dagozkio Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Batzordeari:

- Komunikazioei, oharrei, kontsultei eta iradokizunei arreta ematea, barneko kudeaketa-sistemen bidez.
- Hala dagokionean, ez-betetze posibleen gaineko kexak eta salaketak jasotzea barneko kudeaketa-sistemen bidez.
- Kode hau martxan jartzeko beharrezko ekintzak eta neurriak hartzea, eta, ondoren, ongi funtzionatzen dutela kontrolatzea.
- Kode honen funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.
- Kontsultak ebatzea.
- Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Urteko Txostena egitea.
- Sozietateari eragiten dioten arriskuak identifikatzea eta aztertzea, beharrezkoak diren baliabideen laguntzarekin.
- Administrazio Kontseiluari informazioa ematea egindako zereginei, identifikatutako gabeziei, proposatutako neurri zuzentzaileei eta horien aurrerabideari edo gorabeherari buruz.

- Funtzionamendua.

Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Batzordeak honela funtzionatuko du:

- Gutxienez urtean behin bilduko dira, eta beharrezkoa den guztietan edo Sozietatearen Administrazio Kontseiluak proposatutakoan.
- Bilerak aurrez aurre edo modu telematikoan egingo dira, betiere bertaratuen identitatea bermatzen bada.
- Ohiko deialdia Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Batzordeko idazkariak egingo du presidentek emandako jarraibideak betez eta jakinarazpena jaso dela ziurtatzeko aukera ematen duen edozein bidetatik. Deialdia egiten den dataren eta bileraren dataren artean, gutxienez, hiru egun natural utzi behar dira, ez bada behintzat erabakitzen, premiazko arrazoiak direla-eta, eta Batzordeko kide guztiak bertan direla, bilera egingo dela eta gai-zerrendako puntuak zein izango diren.
- Kodea betetzen dela Ikuskatzeko Batzordea behar bezala eratuta egongo da, kideetatik gutxienez bi bertaratzen direnean.
- Erabakiak botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira, eta berdinketa gertatzen bada, presidenteara kalitatezko bototzat hartuko da. Kodea betetzen dela Ziurtatzeko Batzordeak hartutako erabakiak aktetan jasoaraziko dira, eta



Batzordeko presidentek eta idazkariak sinatuko dituzte, eta bilera horretan bertan edo justu hurrengoan onartu beharko dituzte.

- Erabakiren bat hartzeko garaian Kodea betetzen dela Ikusatzeko Batzordeko kideren bat interes-gatazka sor lezakeen egoera batean badago, horren berri eman beharko die, aurrez, gainerako batzordekideei, eta horrez gain, ez du parte hartuko ez eztabaidan, ez eta bozketan ere.
- Kodea betetzen dela Ikusatzeko Batzordeko kideek sekretupean gordeko dituzte haien eztabaidak eta erabakiak, eta ez dute eskura duten informazio, datu eta txostenik ezagutaraziko, ez eta haien edo hirugarrenen mesedetan erabiliko ere. Eta uneoro konfidentzialtasuna bermatuko dute izapidetzen diren jarduera susmagarrien jakinarazpenen tratamenduan, eta guztiz errespetatuko dituzte uesteko ez-betetze batean nahastuta dauden pertsonen eskubideak.
- Jaso ditzaketen errepresalien aurrean babes egokia emango diete informatzen duten pertsona fisikoei, aurreikusitako prozeduren bidez.

– Tramitazioa.

Jakinarazpenek tramitatzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztela erabakitzen bada, jakinarazpenak artxibatu egingo dira. Hauek izan daitezke artxibatzeako arrazoiak: agerikoa izatea ez direla egiazkoak; agerikoa izatea komunikatutako gertakariak ez dutela hausten babestu beharreko alderdietako bakar bat ere; edo tramitatzeko behar diren gutxieneko baldintzak ez betetzea. Kasu horretan, jarduera susmagarrien jakinarazpena gaitzetsi egingo da modu arrazoituan eta idatziz, eta espedientea artxibatu egingo da.

Aztertu ondoren, jakinarazitako jarduera susmagarriak babestu beharreko alderdiren bat urratzen duen zantzuren bat edo ziurtasuna badago, jarduketa hauek egingo dira:

- Ikerketa bat abiatuko da eta dagozkion frogak eskatuko dira deskribatutako gertaerak egiaztatzeko. Beharrezkoa balitz, Kodea betetzen dela Ikusatzeko Batzordeak ikerketa-talde bat izenda dezake, barneko edo kanpoko langileez osatua.
- Ikerketa amaitutakoan, txosten bat egin beharko da honako xehetasunekin: ikerketak oinarrian dituen dokumentuak, erabilitako prozedurak, eskuratutako frogak, ondorioak eta iradokitako ekintza zuzengarriak.

Txostena berrikusi ondoren, babestutako alderdiren bat urratu dela erabakitzen bada eta arau-haustearen egilea edo egileak identifikatu badira, Kodea betetzen dela Ikusatzeko Batzordeak egokitzat eta beharrezkotzat jotzen dituen diziplinazko neurriak, neurri zuzengarriak eta prebentiboak proposatuko dizkie Sozietatearen Zuzendaritzari eta Administrazio Kontseiluari. Honakoak izan daitezke neurri horiek:

- Tartean dagoen kolaboratzaileari zigor administratiboak edo lan arloko zigorrak ezartzea, arau-haustearen larritasunaren arabera (idatzizko ohartarazpena, etetea edo kaleratzea).
- Gertakariak autoritate eskudunari jakinaraztea.



- Kasua sozietateko kolaboratzaile guztien artean zabaltzea, antzeko gertakariak prebenitzeko mekanismo gisa, hala dagokionean.
- Prozesu edo jardueraren baten ahultasuna agerian geratu den kasuetan, neurri zuzentzaileak hartzea.

Identifikatuta badago, irregulartasunen komunikazioaren tramitazioari buruzko erantzun bat eman behar zaio jakinarazpena egin zuen pertsonari, zentzuzko epe baten barruan. Epe horrek ezin du hiru hilabete baino luzeagoa izan jaso izanaren adierazpenetik, edo, halakorik ez balego, jaso izana adierazteko aurreikusitako zazpi eguneko epemuga amaitzen denetik.